

- **SUSPERKA:** Izaera berritzailea duten jardueratarako diru-laguntzak, Gipuzkoako panorama artistiko-kulturalean (kulturako edozein esparrutan) egitasmo berriak abiaraziko dituzten elkarteei zuzendutakoak.
- **OLATUAK:** Ikuspegi artistiko-kulturaletik prozesu berritzaileekin eta gizarte eraldaketarekin zerikusia izanik, Gipuzkoako arazo zehatzetan eragina duten proiektu puntualetarako diru-laguntzak.
- **MUNDURA:** Beren proiektu artistikoak nazioartera eramateko Gipuzkoako pertsona fisiko eta irabazi asmorik gabeko entitateei zuzendutako diru-laguntzak.

Buletina irakurtzea gomendatzen dugu: laguntzen oinarri orokorrak, lerro bakoitzaren oinarri espezifikoak eta lerro bakoitzarentzat egiten den deialdia, bertan zehazten baitira epeak. Hala ere, kontzientzia gara korapilatsua eta zaila izan daitekeela hizkuntza administratiboa, eta ez gaudela ohituta. Horregatik, hona hemen interesekoak izan daitezkeen hainbat ohar.

Diru-laguntza hauek konkurrenteak dira, hau da, eskaerak haien artean lehiatuko dira diru-laguntza lortzeko. Kontuan izan: laguntzarik jasotzen ez duen proiektua ez da gutxienesten, baina lehia horretan beste batzuk izan daitezke hobe baloratuak. Diru-laguntza lerro bakoitzak adituen epaimahaia izango du, eta kideak zein diren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://gfaegoitza.eus>): horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...). Pasahitz hori lortzeko informazio gehiago topa dezakezu lotura honetan. Prozedurarekin jarraitu ahal izateko, Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14.2 eta 68.4 artikulua jasotzen dituen baldintzak bete behar dituzu: zure datu fiskalei buruzko informazioa ematea esan nahi du horrek, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez edukitzea... Era berean, proiektuaren deskribapena eta gastu eta irabazien aurrekontua ere entregatu behar dituzu. Beste behin, Aldizkari Ofiziala atentzio handiz irakurtzea gomendatzen dizugu.

Behin zure eskaera aurkeztuta, aipatu dugunez, horretarako espresuki izendatutako adituek osatutako epaimahai batek aztertuko du. Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezartzen diren irizpideen arabera egingo dituzte balorazioak. Ezinbestekoa da irizpide horiek kontsultatzea, horrela puntu gehiago lortzeko zure proiektua nola hobetu jakin ahal izango duzu.

Epaimahaiak proiektuak baloratzen dituenean, puntu gehien dituztenek laguntza handiagoa jasoko dute, eta bi zatitan ordainduko diete: %60 diru-laguntza ematea erabaki duten momentuan eta %40 hurrengo urteko lehen hilabeteetan. Kontuan izan banaketa hori zure irabaziak eta gastuak aurreikusterakoan. Jarduerak, bai edo bai, aurrera eraman behar dira, eta noski, dagozkien gastuak ordaindu behar dira urte honetan zehar.

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudekin. K bulegoa Gipuzkoako kultur-arloan lan egiten duten pertsona, talde eta entitate amateur zein profesionalen informazio-espazio eta bidai-laguna da. Proiektuen sorkuntza eta garapenean suertatzen diren beharrei erantzuteko jaio den guneak, egitasmoen iraunkortasuna eta sektorearen profesionaltasuna sustatzea ditu oinarrizko helburutzat.

(+34) 943 113 343 / kbulegoa@gipuzkoa.eus / Errege-erregina Katolikoaren kalea, 16 / 20006 Donostia

Astelehenetik ostegunera: 10:00-13:00 / 16:00-19:00 / Ostiraletan: 10:00-16:00 *Hitzordua hartzea gomendatzen dugu.

SUSPERKA	OLATUAK	MUNDURA
<ul style="list-style-type: none"> Izaera berritzailea duten jardueratarako diru-laguntzak, Gipuzkoako panorama artistiko-kulturalean (kulturako edozein esparrutan) egitasmo berriak abiaraziko dituzten elkarteei zuzendutakoak. Izaera berritzaile hori bai edukietan eta bai kudeaketa moduan ikus daiteke: sareko lanean, bitartekaritzan, garaikidetasun artistikoan, ikerkuntzan, desberdinen artean eta publikoekin sortutako harreman berrietan eta lankidetzan. Gizarte eta kultura arloko egitasmo berriak. Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan. Bete beharreko baldintzak: Diruz lagungarriak diren jarduerak: ikerketa, prestakuntza, sentsibilizazioa, zabalkundea edo koordinazioa arlo artistiko eta kultural ezberdinetan. Funtzionamendu gastuak sartu ahal dira. Gipuzkoan garatzea. Interes, espezializazioa eta/edo originaltasun maila jakin bat izan behar du, lurraldeko kultur eskaintzari ekarpen nabarmena egiteko. Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Ekonomikoki bideragarria izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikuspegi artistiko-kulturaletik prozesu berritzaileekin eta gizarte eraldaketarekin zerikusia izanik, Gipuzkoako arazo zehatzetan eragina duten proiektu puntualetarako diru-laguntzak (elkarteak, mikro-enpresak, norbanakoak). Ekintza horiek kulturaren alderdi sozial eta eraldatzaileenak landu behar dituzte: bakean oinarritutako bizikidetzak, jasangarritasun ekologiko, pertsonen arteko berdintasuna, elkartasuna, partaidetza eta gizarte integrazioa. Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan. Bete beharreko baldintzak: Diruz lagungarriak diren jarduerak: ikerketa, prestakuntza, sentsibilizazioa, zabalkundea edo koordinazioa arlo artistiko eta kultural ezberdinetan. Funtzionamendu gastuak sartu ahal dira. Gipuzkoan garatzea. Interes, espezializazioa eta/edo originaltasun maila jakin bat izan behar du, lurraldeko kultur eskaintzari ekarpen nabarmena egiteko. Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Ekonomikoki bideragarria izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> Beren proiektu artistikoak nazioartera eramateko Gipuzkoako pertsona fisiko eta irabazi asmorik gabeko entitateei zuzendutako diru-laguntzak. Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan. Bete beharreko baldintzak: Diruz lagunduko diren jarduerak: artearen eta kulturaren alorreko jaialdi edota lehiaketetan parte hartzea; artearen, musikaren, antzerkiaren edo dantzaren alorreko emanaldiak eskaintzea. Espainiako Estatutik kanpo. Frantziako Estatuan izanez gero, abialekutik gutxienez 200 kilometrora. Diru-laguntzaren xede izango diren gastuak: bidaia edo joan-etorriak, garraioak, ostatu hartzea, otordu-ordainak edo dietak, eta espazioen alokairua. Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Ekonomikoki bideragarria izatea. Urte batean diru-laguntza lortzen duen eskatzaileak ezingo du honelako laguntza bat eskatu hurrengo bi urtetan.

BALORAZIO IRIZPIDEAK		
<p><i>Diru-laguntzen eskaerak balioesteko, kontuan hartuko dira jarraian aipatzen diren irizpide eta baremoak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> 1-Proposamenaren esperimentazio eta berrikuntza maila, aurrez Gipuzkoan dagoen kultur eskaintzarekin alderatuz (gaiak, formatuak, diziplinak, metodologiak, prozesuak...): 30 puntu arte. 2-Proposamenaren interesa, eta programa edo jardueraren testuingurua aztertzeke zehaztasuna: 10 puntu arte. 3-Gipuzkoako kultur eskaintzaren orekari egiten dion ekarpena: 10 puntu arte. 	<p><i>Diru-laguntzen eskaerak balioesteko, kontuan hartuko dira jarraian aipatzen diren irizpide eta baremoak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> 1-Gaur egungo arazo eta gaiekin eta testuinguruarekin duen lotura. Proposamena kulturaren eta gizarte arazoan arteko elkargunean esku hartzeko egokia den: 40 puntu arte. 2-Parte hartzeko kanalak irekitzeko eta horiei eusteko gaitasuna izatea, eta beste eragileekin lankidetzak sareak artikulatzea: 10 puntu arte. 3-Testuingurua aztertzeke zehaztasuna eta proposamenaren egokitasuna. Berriarazko publikoak eta proposamena zuzentzen zaion komunitatearen beharrak identifikatzea: 10 puntu arte. 	<p><i>Diru-laguntzen eskaerak balioesteko, kontuan hartuko dira jarraian aipatzen diren irizpide eta baremoak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> 1-Jarduera gertatuko den testuinguruaren interesa: 20 puntu arte. 2-Diru-laguntza eskatzen duen pertsona edo entitatearen esperientzia/ibilbidea artistikoa: 10 puntu arte. 3-Bidaiaren proposamen artistikoaren kalitate eta interesa: 10 puntu arte.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

4- Parte hartzeko kanalak irekitzeko eta horiei eusteko gaitasuna izatea, eta beste eragileekin lankidetzak sareak artikulatzea: 10 puntu arte.

5- Proposamenaren zentzua eta epe ertainerako/luzerako jarraipena: 10 puntu arte.

6- Proposamenaren bideragarritasuna, neurriari eta helburuari dagokionez: 10 puntu.

7- Proposatutako programak hizkuntza ofizialen erabilerari eta euskararen presentziari eta erabilerari dagokienez dituen irizpideak: 10 puntu arte.

8- Genero berdintasunaren ikuspegia programaren helburu eta ekintzen artean, eta emakumeen ekarpena eta partaidetza: 5 puntu arte.

9- Entitatearen ahalegina, gazteak (35 urte arte) barne hartzeko: 5 puntu arte.

Gutxieneko balorazioa: 50 puntu.

Kanpo geratzen dira: Suntsikorra ez den ekipamendua, material erosteko inbertsio gastuak, lokalak egokitze lanak. Aisia eta denbora librearen okupaziora nahiz gazteriarri zuzendutakoak. Jai-programak eta erritu izaerakoak. Azoka tematikoen antolaketa. Nekazaritza azokak eta gastronomiari lotutako lehiaketak eta jarduerak. Izaera profesionaleko ikuskizun eszenikoen, ikus-entzunezkoen eta musikalen sorkuntza eta ekoizpena.

4-Proposamenaren zentzua eta epe ertainerako/luzerako jarraipena: 10 puntu arte.

5-Proposamenaren bideragarritasuna, neurriari eta helburuari dagokionez: 10 puntu.

6-Proposatutako programak hizkuntza ofizialen erabilerari eta euskararen presentziari eta erabilerari dagokienez dituen irizpideak: 10 puntu arte.

7-Genero berdintasunaren ikuspegia programaren helburu eta ekintzen artean, eta emakumeen ekarpena eta partaidetza: 5 puntu arte.

8-Entitatearen ahalegina, gazteak (35 urte arte) barne hartzeko: 5 puntu arte.

Gutxieneko balorazioa: 50 puntu.

Kanpo geratzen dira: Suntsikorra ez den ekipamendua, material erosteko inbertsio gastuak, lokalak egokitze lanak. Aisia eta denbora librearen okupaziora nahiz gazteriarri zuzendutakoak. Asistentzia ematekoak eta izaera sozio-komunitarioko misio nagusia dutenak. Unibertsitateek antolatutako proiektuak eta/edo jarduerak.

4-Proposamenaren bideragarritasuna, neurriari eta helburuari dagokionez: 10 puntu.

5-Euskararen presentzia eta erabilera proposatutako egitasmoan: 5 puntu arte.

6-Emakumeen ekarpena eta partaidetza aurkeztutako proposamenean: 5 puntu arte.

7-30 urtetik beherako gazteen parte-hartzea aurkeztutako egitasmoan: 5 puntu arte.

Gutxieneko balorazioa: 35 puntu.

Kanpo geratzen dira: Emanaldi edo erakustaldi artistiko bat eskaintzeko helbururik gabe egindako joan-etorriak, hala nola, ikastaroetan parte hartzea eta beste batzuk.

GUZTIZKO DIRU-LAGUNTZEN KOPURUA

100.000 €	150.000 €	90.000€
SUSPERKA	OLATUAK	MUNDURA
<ul style="list-style-type: none"> • Irizpide orokor gisa, diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 70a, ezta ere eskatzaile bakoitzeko 12.000 euro. • Proiektu guztiek beste finantzaketa iturri batzuetatik, publiko nahiz pribatuetatik, lortu beharko dute aurkeztutako aurrekontuaren % 30eko finantzaketa, gutxienez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irizpide orokor gisa, diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 70a, ezta ere eskatzaile bakoitzeko 6.000 euro. • Proiektu guztiek beste finantzaketa iturri batzuetatik, publiko nahiz pribatuetatik, lortu beharko dute aurkeztutako aurrekontuaren % 30eko finantzaketa, gutxienez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irizpide orokor gisa, diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 70a, ezta ere eskatzaile bakoitzeko 20.000 euro. • Proiektu guztiek beste finantzaketa iturri batzuetatik, publiko nahiz pribatuetatik, lortu beharko dute aurkeztutako aurrekontuaren % 30eko finantzaketa, gutxienez.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarri osoak, eskaerak aurkeztu, inprimakiak eta aurkeztu beharrezko dokumentazioa: <https://egoitza.gipuzkoa.eus>.

Olatuak eta Susperka : Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 13ean ireki da, eta 2019ko apirilaren 12ean bukatuko da.

Mundura: Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 15ean ireki da, eta 2019ko apirilaren 4ean bukatuko da.

ZURITZEKO EPEA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>).

Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.

*Oharra: Taula hauek K bulegoak egindako laburpenak dira. Diru-laguntzen ideia nagusiak ulertzen laguntzeko egin ditugu. Oinarri osoak kontsultatzeko: <https://egoitza.gipuzkoa.eus>.

(+34) 943 113 343 / kbulegoa@gipuzkoa.eus / Errege-erregina Katolikoaren kalea, 16 / 20006 Donostia

